

Jordi-ak: Ba ote dago onoma artikuludunik?

Ander ROS CUBAS

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
belautepien@gmail.com

Laburpena: Izen propioak edo onomak determinazio sintagmen pareko unitateak dira eta hortaz jaso dezaketen bir-determinazioa espletiboa da beti, eduki semantikorik gabekoa alegia. W. Van Langendoncken bereizketa kontuan harturik, artikuluan onimikoaren kasu diskurtsiboak eta ez-diskurtsiboak bereizi dira. Lehendabizikoak, oro har, onomari aposaturiko apelatibo edo esaldi *a posteriori* elidutuei lotzen zaizkie eta itxuraz baino ez dituzte onomak determinatzen. Kasu ez-diskurtsibo edo lema onimikoek ihartua dute behinola artikulua izandako soinu-segida. Izan ere, determinazio sintagmek, onomizatzen direnean lehendik zuten eduki semantikoa galtzearekin batera, galdu edo hormatu egiten dituzte marka diskurtsiboak, artikulua kasurako. Onoma artikuludunak sailkatzeko proposamen bat egiten da lanean eta sail eta azpisail bakoitzeko adibideak aztertzen dira. Hasieran luzatutako hipotesira aise makurtzen dira aztertutako kasu guztiak: edo behinola artikulua izandako morfemak soinu hutsak dira edo onomei zuzenik ez dagozkien artikulua dira, elipsi bat tarteko, hauekin hala-beharrez aurrez aurre suertatu direnak.

Hitz gakoak: artikuluan onimikoa, sasi-artikulua, aposizioa, elipsia, espletiboa.

Resumen: Los nombres propios u *onomas* son unidades equiparables a los sintagmas determinantes y por tanto la re-determinación que pueden recibir es siempre expletiva, es decir, vacía de contenido semántico. Tomando en consideración la distinción de W. Van Langendonck, se han discriminado los casos discursivos y no-discursivos de los artículos *onímicos*. Los primeros, como norma general, se ligan a apelativos o frases elididas *a posteriori* y no determinan sino aparentemente a los *onomas*. Los casos no-discursivos o lemas onímicos tienen fosilizada la secuencia fónica que en su día fue artículo. No en vano, los sintagmas determinantes cuando se *onomizan* a la par que pierden el contenido semántico que poseían, pierden o congelan las marcas discursivas, el artículo entre ellas. Se hace una propuesta de clasificación de los *onomas* con artículo y se analizan los ejemplos de cada apartado y subapartado. Todos los casos estudiados se pliegan sin dificultad a la hipótesis inicial: o los morfemas que fueron anteriormente artículos son ahora una simple secuencia de sonidos o son artículos que no se ligan directamente a los *onomas*, sino que circunstancialmente, elipsis mediante, se han encontrado frente a frente con estos.

Palabras clave: artículo onímico, pseudo-artículo, aposición, elipsis, expletivo.

I. Arazoaren aurkezpena

2017ko udazken honetan, ehunka prentsa-goiburu bete eta milioika lagunen ahotan erabili den (01) izen sintagma soil honek hain soila ez den arazo bat ez-kutatzen digu: artikulua edo sasi-artikulua onimikoa¹.

- (01) a. Jordiak
 b. els Jordis
 c. los Jordis
 d. os Jordis
 e. the Jordis

Adibideok aurrean ditugularik, inork gutxik ukatuko luke holako artikuluen existentzia. Azterketa arretatsuago bat eginda, alabaina, artikulua eta onomak bateraezinak direla eta ustezko artikulua horiek –eta horien antzeko beste batzuk– edo ez direla artikulua edo ez direla onimikoa ondorioztatu behar digu ezinbestean, hots, onomak ez beste zerbait determinatzen dutela edo itxuraz baizik ez direla artikulua, inondik ere ez funtzioz.

Oro har, esan dezakegu artikulua definitua eta onoma bateraezinak direla², eta elkarrekin ikusten ditugunean ez dela dirudiena izaten. Paradoxikoa³ ere bada, bestalde, berez beharrezkoa ez den eta nolabait debekatua eta kontraesankorra den

1. Erosotasunaren, onoma bati adjuntaturik gauzatzen diren eta sistema gramatikaleko artikuluen antza duten elementuei «artikulua onimikoa» deituko diegu, nahiz eta gure azken ondorioa hauek artikuluen itxura bai baina funtzionalitate determinatzaile edo aktualizatzaile bat ere ez dutelakoa izango den. Asko dira artikulua onimikoa, artikulua definitua azaltzen dutenak batik bat.

2. «With proper names, definiteness and number (singularity) are inherent, and hence, Ds are rather marginal: the prototypical proper name even lacks an article; possible Ds are either fixed or optional, depending on the subclass of the proper noun; moreover, only a limited number of Ds is allowed» (Longendonck, 1994: 249); «Les noms propres, en principe suffisamment déterminés en eux-mêmes, se passent aisément de l'article» (Grevisse, 2008: 759).

3. L. Berezowskik azaltzen du hau oso modu argi batez: «Not too many scholars devoted their time and effort to investigating the issue, but those who did typically viewed it as some sort of unwelcome clash between the definiteness of the article and the definiteness of proper names, and wished it had not been there. The main thrust of their efforts was thus directed not at investigating the nature of the relationship, but at devising various ways of explaining it away. / [...] Given this understanding of the function of the definite article, it is perfectly logical to see no reason why definiteness should be added to proper names if they already are definite to start with. Consequently, proper names with the definite article are viewed as some sort of linguistic paradox it is best to stay away from» (2001: 120-121). Paradoxa gainditzeko irakasle poloniarrek egiten duen proposamena ordea, determinazio unibertsalarena da.

elementu bat hain sari erabilia izatea. Banan-banan aztertuko ditugu kasu ezberdinak. Aurreratu bezala, badira jatorri edota egitura ezberdineko kasu gehiago, denak ere agerian artikulatu itxurako batez lagundurik azaltzen zaizkigunak, zein bere ezau-garri eta jatorri ezberdinekin. (02)-(15) adibideek erabilera aukera gehientsuenak erakusten dizkigute. Alde batera utziko ditugu oraingoan, bestelako arazoak aurkezten dituztelako eta honelakoek euskaraz artikulurik nekez jasotzen dutelako, izenlagunez edota erlatibozko esaldiez osaturiko (16)-(17) adibideen modukoak.

- (02) Juan Sebastián El Cano
- (03) a. Na Nuria
- b. Il Fabriccio
- c. Le Pierre
- (04) a. Bizkaiaa
- b. La Vizcaya
- (05) El Arga
- (06) Azoreak
- (07) El Vaquilla
- (08) El Garay
- (09) Las Bárdenas
- (10) Bi Nafarroak
- (11) A Coruña
- (12) Karamazov*i*
- (13) Il Belli Capelli
- (14) Picasso bat
- (15) Peugeota
- (16) a. The Paris of my youth
- b. Nire gaztaroko Bilbao
- (17) La Pamplona que se fue

Azpimarraturik eta behingoz maiuskulaz idatzi ditugu artikulua. Halaber, analisia soiltzearen, ez dugu aztertuko artikuluei laguntzen dieten flexio mar-ken arazoa, ez numeroarena, ez generoarena.

II. Sailkapena

Kasuistika zabala eta ñabarra dugu artikulua onimikoena eta ez dago kasu guztiak sailkatzeko irizpide bakar bat erabiltzerik. Jatorria kontuan hartzen baldin badugu, hiru multzo nagusitan –eta antzematen hain erraza ez den eta neurri batean aurrekoen emaitza datekeen laugarren batean– bil daitezke goiko andanako sin-

tagmak. Erabilera kontuan hartzen baldin badugu, berriz, bi multzo nagusi eta hainbat azpimultzo bereiz daitezke.

Ez dago artikuluko onimikoaren agerpen ezberdinak sailkatzeko saio gehiegi-rik, gramatika eta tratatuak kasuistika deskribatzera mugatzen baitira gehienetan. Frantsesaren gramatikak (Grevisse 2008 da adibide ona) dira honen adibide argiak. Guk dakigula, Ignacio Bosqueri (2016: 113-114) zor zaio plazaratu den azken ahalegina. Saioa xumea da baina, terminologia eta azalpenak gorabehera, ez horregatik interesik gabea. Toponimoak hiru «manera» ezberdinetan gauzaten direla diosku Complutenseko irakasleak: potestatiboa, integratua eta exentoa. Willy Van Langendonck irakasle emeritu belgiarrak (2007: 8) onomastika teorikoan mugarrria izango zen lan batean gurearen oinarria izango den funtsezko bereizketa bat ezarri zuen:

Apparently due to the lexicalist views that were adopted in the last few decades, the few linguists who have studied proper names have in general neglected the distinction between a name as a lemma (dictionary entry) and a name in a specific grammatical (proprial or appellative) function. [...] In my view, it would be very helpful to clarify the distinction between names as lemmas or dictionary items and names as words belonging to a particular semantic-syntactic class.

Dikotomiak, orokorra den arren, bete-betean ukitzen du artikuluko onimikoaren gaia. Izan ere, artikuluko onimikoa –artikulutzat har daitekeen neurrian– bereizketaren bigarren alderdiari baitagokio. Bestela esanik, onomei laguntzen dieten artikuluko elementu diskurtsiboak dira, onomari berari ez baina beste elementu batzuei dagozkienak.

Forma artikuludunak aiseago txertatzen dira diskurtsoan baina forma biluziak dira lema moduan lehenesten direnak. (18a)-(18b) Barakaldoko onomak dira, artikuluko eta guzti onomizatu direnak. (18c) Nilo ibaia erreferitzeko modu ohikoenak hizkuntza ezberdinetan. Hala ere, lehenengoetarako sarri aurkitzen ditugu dokumentazioan (19)ko aldaerak, lema edo aipamen-forma denominatibotzat interpreta daitezkeen testuinguruetan, krokis-mapa, goiburua, zerrenda edota formularioetan, kasurako. Eta (19c) da *Encyclopædia Britannicak* esaterako dakarren lema⁴. «Proprial lemma» izendatzen ditu hauek Van Langen-

4. Adibide txarra hautatu zuen Chomskyk, bada, hau artikuluko onimiko ihartuen ordeko: «The category [Det –] is simply the category of Common Nouns. The category [–] is the category of Proper Nouns, that is, Nouns with no Determiner (or, as in the case of «The Hague», «The Nile», with a fixed Determiner that may just as well be taken as part of the Noun itself, rather than as part of a freely and independently selected Determiner system)» (1965: 100).

donck-ek⁵. Hauetatik oso hurbil daude (20)-(21) bokatiboak, aingura testualetatik libreentik dauden elementu gramatikalak⁶.

- (18) a. La Bomba (calle de)
- b. El Desierto
- c. The Nile, el Nilo, le Nil, der Nil, al-Nīl...
- (19) a. Bomba (calle)
- b. Desierto
- c. Nile River
- (20) a. La Tacones
- b. ¡Tacones, acércate aquí!
- (21) a. Baltza
- b. ¡Baltza, erdu hona!

Euskarak badu honetan jokabide berezia. Bokatiboak forma artikulunak onartzen ditu, apelatiboetan zein onometan (izengoitietan, kasurako). Honek bokatiboa ez, baina artikulatu definituzat daukagun *-a* elementua berraztertzeraz eraman beharko gintuzke. Zeren eta, bokatiboan⁷ ez ezik, tradizio lexicografikoan, joera modernoaren kontra, lemetan ere artikuludun formak dira jaun eta jabe, izen abstraktu eta maileguak dira salbuespen nabarmenenak, J. Manterolak (2015: 541-542 *et passim*) frogatu berri duenez. Horrek esan nahiko luke menturaz *-a* elementua artikulatu definituz gain, zerbait gehiago ere badaela euskaraz.

Ez dira hauek, aitzitik, «paleo-artikuluak» modu potestatiboan alternatzen diren testuinguru bakarrak. Bosquek (2016: 113) «exento» kategorian sartzen dituenen artean sarri ematen baita txandakatzea. Horrek esan nahi du, Bosquek definituriko kategoria horiek elkarri gainjartzen zaizkiola eta errealitate ezberdinei erantzuten dietela. Aurrerago helduko diegu (22)ko tankerako kasuei.

5. «A distinction will be made between (proprial) lexemes or lemmas in isolation (dictionary entries) and proprial lemmas in their different functions (prototypically functioning as proper names, nonprototypically as common nouns or other classes)» (2007: 7).

6. Katalaneraz ere deskribaturik dago murriztapen bera: «Efectivament, avui se n'exclou l'ús en la interpel·lació, amb els verbs anomenadors» (Coromina, 2001: Resum). Berdin titulu edo tratamenduekin: «Anàlogament, l'article definit també s'omet davant títols o tractaments personals en vocatiu» (*Ibid.*: 142).

7. «Bokatibo funtzioan diren sintagmez denaz bezainbatean, esan daiteke ez dela alde nabarmenik antzematen XVI. mendeko testuetan, mendebaldekoak zein ekialdekoak izan: artikulua izan ohi dute euskalki guztietan» (Manterola, 2015: 387).

- (22) a. El Garay
 a' El [susodicho] Garay
 b. El Tajo
 b' El [río] Tajo
 c. Azoreak
 c' Azore [uharte]ak
 d. El Txindoki
 d' El [monte] Txindoki

Lehendabiziko sailkapen bat proposatuko dugu, gerora zuzendu, zehaztu eta osatu beharko dena:

- | | | |
|------|-----------------|----------------------|
| (23) | SASIKOAK | DISKURTSIBOAK |
| | a) Preonimikoak | a) Tropo-ordainak |
| | b) Mamuak | b) Aposizio-ordainak |
| | c) Bizkarroiak | c) Zehaztaileak |
| | d) Autonimoak | |

1. *Onoma sasi-artikuludunak*

Van Langendoncken lema onimikoen barruan artikulua dutenak eta ez dutenak daude. Aurrenekoek sasi-artikulua erakutsiko ligukete beti, artikulua eta onoma bateraezinak badira, artikulua atzeko aterean batetik sartu dela on-dorioztatu behar baitugu. Bosqueren «integratuak» (2016: 113) –edo «sustantiboan lexikoki txertaturiko formak»⁸– lirateke hauek, nahiz eta berak guk «preonimiko» izendatu dugun kategoriakoak bakarrik hartzen dituen kontuan (24a) adibidekoaren tankerakoak.

- (24) a. El Cairo

a) *Artikulu preonimikoak edo paleo-artikuluak*

Lehen begi ukaldi batean antzeman eta segurki Bosquek berak pentsatu baino adibide esanguratsua da *Kairo* nukleonimoarena. Arabieraz (24b) dugu, *Al-* artikulua izanik. Gaztelaniaz artikulua horretatik fonetikoki hurbilen

8. «Formas integradas lexicamente en el sustantivo» da berak darabilen epigrafea.

dagoen *E/* artikulua ordezkatu du eta bide batez onomari komunztadura maskulinoa eman. Frantsesez eta italieraz, ildo beretik (24c) eta (24d) ditugu, hurrenez hurren. Ingelese (24f) eta alemanieraz (24g), ordea, artikuluen formen parekotasunik ezak forma biluzia beraganatzea ekarri du, eta horrela erabaki da euskararako ere, alemanaren formarekin bat etorritz. Portugesak (24e) erdibidea erakusten du, Bosqueren kategoria potestatiboan kokaturik, beraz.

- (24) b. Al-Qāhira
 c. Le Caire
 d. Il Cairo
 e. (O) Cairo
 f. Cairo
 g. Kairo⁹

(24a) eta (24c)-(24e)ko onometan hondar hori, arabierazko jatorrizko forman ez bezala, bereiz idatzirik ikusteak sortarazten digu artikulua irudipena, ilusio optiko bat baizik ez baita. Artikulua izandako elementua oraindik artikulua ote den erabakitzeke zalantzarik bagenu nahikoa genuke lexikora jotzea. Onomekin bezala, mailegu lexikoetan alternantzia ikusten dugu baina ez dugu horregatik dudarik espainol, portugez eta euskarako formen hasierako *a-* arabierako *al-* artikulua azterna hondar bat besterik ez dela, arabieran bertan hitz hasierako kontsonatearekin asimilatuta desitxuratzen hasitakoa.

- (25) a. azukre, azucar, açúcar (< as-sukkar)
 b. sucre, sugar, Zucker, zucchero

Pentsatu izan da artikulua potestatiboa edo ken-jartzekoa izatea beronen bizitasunaren seinalea dela. Ez dago holakorik. Baldintza fonotaktikoak izaten dira forma biluziaren eta forma lotuaren hautua bideratzen dutenak. Argia da hau euskaratik erdara mailegaturiko hitzetan, zeinetan koda bokalikoa lehenesten den kontsonantikoaren gainetik, nahiz eta honek hitzak artikulua eta guzti mailegaturik hartzea suposa dezakeen, eta bidez batez femeninotzat hartzea:

9. Euskara, artikulua postposatua duelako, eta ingelesa, *the* artikulua *al-* arabearekin antzik ez duelako, libreago zeuden arabierazko maileguak *al-* elementuaz lagunduta hartzetik baina arabismoak neurri handi batean erromantzeetatik jaso zituzten; gaztelaniatik bereziki euskarak eta normandieratik ingelesak.

- (26) a. chartela (< txartel-a)
 b. chapela (< txapel-a)
 c. ibarra (< ibar-a)
 d. jatorra (< jator-a)
 e. makila (< makil-a)

Paradoxikoki, Euskaltzaindiak M. Gorrotxategi eta P. Salaberriren eskutik paratutako azken izendegian (2001) *Oihan / Oihana* tankerako bikoteetan prozedura erromantze hori imitatu eta *-a* bokaldunak lehenetsi zituen emakumezkoen izenatarako, izenen generoa bereizteko sistema aberrante bat *ex nihilo* sortuz. Egia da badagoela tradizio txiki bat zenbait ponte izenek *-a* marka hartzeko, baina pentsarazi nahi izan denaren kontra, gizonezkoen izenak dira. Mitxelenak bi lantxo (1955, 1959) idatzi zituen honetaz, literatura erlijiosoan azaltzen diren *Jesusa* eta holakoak hizpide eta aztergai hartuta. *Jesusa*, jakina, ez da erdarazko *Jesús* onomaren forma femeninoa, bere forma determinatua baizik.

Itxurak itxura, artikulua ihartua dugu kasu hauetan denetan. Onimizatu aurretik determinazio sintagma bat osatzen zuten honelako izenek eta artikulua definitua atxikita zutela gertatu zen transkategorizazioa. Determinazio sintagma bat ihartu eta onoma bihurtzen den momentu beretik etiketa zurrun bat bihurtzen da, artikuluen eta gainerako elementu gramatikalen funtzionalitatea istantean galduz. Izan ere, eduki semantikoaren eta izena osatzen duten elementu lexiko-gramatikalen funtzionalitatearen galera da izen sintagma bat onoma bihurtzeko ezinbesteko baldintza.

Bizkai ez da dagoeneko hizkuntzaren elementu lexikoa¹⁰. Horrela, nekez determina dezake artikulua batek. *Bizkai-* forma biluzia, *Bizkaia* forma deklinatuaz batera gorde izanak ez du ezer aldatzen. Ohikoak dira morfologia flexiboan forma lotuen ondoan forma biluziak ere gordetzea. Horrela (27a)-(27c)ko aditz pareetan erlazio sinkronikorik ez, baina bilakabide fonetiko historiko ezberdinen emaitza dibergenteak ikusten ditugun bezala, material onimikoetan (28a) emaitza bikoitza gordetzen duten hainbat adibide aurki ditzakegu.

- (27) a. duda- / dut#
 b. dua- / duk#
 c. due- / du#

10. «Parece que **bizkai* ha sido en otros tiempos un apelativo, a juzgar por su difusión en toponimia, y designaba tal vez lugares elevados» (Gavel *Fon* 305n), OEHak jasoa.

- (28) a. -ø- / -a#
 b. Bizkai- / Bizkaia#
 c. Otsagabi- / Otsagabia#
 d. Deustu- / Deustua#
 e. Azkoiti- / Azkoitia#

Nolanahi ere, emaitza bikoitza ez da egonkorra eta berdintzera jotzen du, bai aditz formetan bai nukleonimoetan:

- (29) a. dut- / dut#
 b. duk- / duk#
 c. du- / du#
 (30) a. Deustu- / Deustu#
 b. Azkoiti- / Azkoiti#
 c. Donosti- / Donosti#
 d. Ordizi- / Ordizi#

(29) eta (30)ko formak ahozko erregistrokoak dira, baina (30a) da forma historikoaren gaintetik estandarizatu dena, *Legazpi* eta beste zenbait onomarekin egin antzera. *Donostiako* eta *Donostiara* forma jasoen ondoan *Donostiko* eta *Donostira* arruntak 73.500 eta 20.300 aldiz idatzirik agertu zaizkigu hurrenez hurren Google-n egindako bilaketa batean (2017/11/26), eta 29.800 eta 1.370 aldiz *Ordiziko* eta *Ordizira* arruntak aurrekoaren pareko bilaketan. Ahozko erregistroan are nabarmenago izango da segurki «merger» fenomeno.

Bizkai(a) euskarazkoaren ondoan, Nafarroako Zangozako merindadean ere badugu koronimo paraleloa, hibrido edo hibridizatua kasu honetan: *La Vizcaya*. Horrez gain, badira beste zenbait *Bizkai(a)* eta *La Vizcaya* merindade horretan barrena. Forma hibrido honetan are argiago ikusten da euskal artikulua ihartuaren funtzionalitatearen ezdeusa, hizkuntza baten sistema gramatikaleko elementu bat nekez erabil baitaiteke beste batean, are gutxiago hizkuntza hartzailea tipologikoki hain ezberdina bada. Kasu honetan, erdarazko artikulua interpretazioa ez da guztiz unibokoa, baina pentsa daiteke *Las Langas* (Eraul; Lander, 2008: 264) tankerako izenetan bezala, unitate lexikoa (artikulua barne) mailegatu zuela erromantzeak eta *la vizcaya* determinazio sintagma bere horretan ihartu zela. Ez da ordea, interpretazio bakarra. Izan ere, beste kasu batzuetan artikulua erromantzea berezko onomei eransten zaie, *las Pamplonas* edo *la Fermi-na* bezalakoetan, konparazione.

Atal hau ixte aldera, R. Lass-en gizonetzkoen titiburuen simil arrakastatsutik¹¹ tiratuz esan genezake, hauek berezko [edoskitze] funtzionaliterik gorde ez arren, zenbait ezaugarri gorde dituztela, sentsibilitatea eta zutikortasuna, kasurako. Beste simil bat baliatuta, esan dezakegu onoma –ausazko bere artikulua hormatua barne– irudi formatuko artxiboa dugula eta ez testu formatukoa, hizkiak eta hauek osaturiko unitate eta kateak ikusi eta irakurri egiten dira baina hor bukatzen da bere atxikigarritasun linguistikoa. Ezin dugu testuaren letra tamaina edo tipoa aldatu, ezta zuzenketarik egin, entzun edo itzultzaile automatiko baten input bezala erabili ere. Nahi badugu artxiboa atzera operatiboa egin, OCR programa batez transkategorizatu behar dugu, onomasta batek onoma jatorrizko osagaietan banatu eta atzera bizitzara ekarriko balu bezala. Izan ere, hori da onomastikan egiten den zereginetako bat, onomak fase preonimikora ekartzen saiatzea eta horrela jatorrizko esanahia argitzea.

b) *Mamu-artikuluak edo artikulua berrinterpretatuak*

Sortzez artikulua izanik, ihartu eta xurgatuak edo irentsiak izan direnak izan ditugu ahotan orain artean. Kontrakoa ere, fenomeno usua eta ezaguna da. Toponimian sarri aurkitzen ditugu horren testigantzak, nahiz eta hauek erregistro lagunarteko edo ez-jasoan gertatu eta hortaz gutxitan helden diren forma finkatuak izatera. Euskaraz *La-*, *El-* edo antzeko hasiera duten izen askotan *La* eta *El* artikulua interpretatzen dituzte gaztelaniadunek. (02)ko adibidearen antzekoak dira beste hauek ere:

- (31) a. Larrainandia > Larrenandia > La Renandia (Deierri: Eraul)
 b. Erensuge > Elesuge > El Esugue (Ibargoiti: Getze)
 c. Laminaerreketa > Lanbarketa > La Embarqueta (Arrigorriaga)
 d. Ortzekauko > Ortxikoko > El Txikoko (Bilbao: Artikak)
 e. Aresluzeta > Aluzeta > La Roseta (Abando: Larraskitu)
 f. *Lejarreta > La Járreta (Gueñes)

11. Hauxe da bere formulazioa: «For the anatomist they are difficult: they are clearly ‘the same thing’ as female nipples, but have no reasonable explanations within the male mammal system. They neither give milk nor promote sexual arousal [...]. But once we transcend the synchronic or functional, their presence is quite easily explained: the grounds are historical, in particular embryological. [...] / Male nipples make sense only diachronically; they are not ‘part of’ the synchronic system except as a side-effect of ontogeny, but are ‘backwardlooking’» (1997: 16). Hiztegiak ematen duen «titiburu» hitzaren definizioari kasu eginik, gizonetzkoenak ez lirakeke titiburu: «Ugatzen burua, botoi itxurakoa, edoskitzean umeak ahoan sartzen duena» (*Lur* hiztegia).

Larre eta *larrain* lexemadunek, esaterako, hamaika berrinterpretazio eragin dituzte. *La Renandia* gure aita jaio zen kaleak gaur duen izena dugu, J. M. Lan-derrek (2008: 263) jasotako *Larrañandia* (1784) bera urrean.

Ola lehendabiziko elementutzat duten onomen kasua ere paradigmaticoa da. Aferesia jaso gero, *La-* sekuentzia berria artikulutzat interpretatu eta ondoren galdu ere egin daiteke. Bizkaiko Enkartazioetan, Sopuerta herrian, *Las Barrietas*¹² izeneko auzoa dugu, *La Barrieta de abajo* eta *La Barrieta de arriba* nukleoek osatua. Herri berean *La Baluga* ere badugu, menturaz antzeko berrinterpretazioa jasan zezakeena eta Gueñes eta Barakaldo arteko muga *Bakuna* izen bitxiko landa dugu. *La* artikulua lagunduta jaso dugu dokumentazio zahar-reen¹³. Baliteke, horrenbestez, sortzez **Olabakuna* izatea. Barakaldon bertan, gaur hondarretan dagoen *Lurkitzaga*¹⁴ baserria, *Laurquiçaga* izendaturik ager-zen da sistematikoki dokumentazio zahar-reen. Bakanka, kanpoko eskribauen lumatik bereziki, *La Urquiçaga* ere irakur daiteke ordea. Adibideak nahi adi-na biderka litezke. Honelakoak ez dira jatorrizko artikulua baina hauen eitea hartzen dute. Kasu hauetan ere, ez guke inondik ere esango artikulua dugu-nik. Gainera, muturreko adibideak direla argudia liteke, egoera diglosikoetan eta hizkuntza aldaketa pairatutako lurraldeetan gertatutakoak eta horrenbestez sasi-artikulu onimikoaren auzian deus gutxi dutela esateko. Hein handi batean horrela da, baina badira bestelako adibide garrantzitsuak ere. (01)eko *Els Jordis* sintagma itzultzeko ordua da.

Azter dezagun lehenik katalaneraren eredia. Katalanak, «pertsonea» deri-tzon artikulua erabilera zabala egiten du. Erregistro formalenetan eta goian aipatu ditugun testuinguru ez-diskurtsiboetan izan ezik, orokorra da erabilera. Mallorcan du, hala ere, bizitasunik handiena eta Valentzian txikiena. *En* mas-kulinoa eta *na* femeninoa dira forma estandar-ak, bietarako *n'* forma apostrofa-tuarekin bokalez hasitako izenetarako. Pluralen, bestalde, defektiboa da eta

12. Baliteke sortzez **Olabarrieta* izatea, baina ez litzateke baztertzekoa oinarria **labarr(i)* edo beste zerbait izatea eta ez **ola-barri*. *Olabarrieta* forma dokumentatzen ez delarik, horrela norma-lizatzea ausarkeria izan da, gehiegikeria hirukoitza *Olabarrietaigoikoa* eta *Olabarrietabekoa* formak asmatu izana. *Labarrieta* ondoko Gordexola herrian ere badugu.

13. *La Vacuna*, gaur *Labakuna*, Gordexolako etxe bat ere bada, eta *Bakuna* Amurrioko tro-ka baten izena. Interesgarria litzateke, eta hipotesi sendoak egiteko baitezpadakoa, hiru *Bakuna* hauen arrasto zaharrak aurkitzea. Deitura moduan ere, *La* elementuaz lagunduta erabili izan zen.

14. Dokumentazio zaharri muzin eginda, hasiera arrotza zela suposatu eta *Urkitzaga* norma-lizatzea proposatu zuen Mikel Gorrotxategik: «Da la impresión de que las formas con *L-* presentan confusión con el artículo y que el nombre es *Urkitzaga*, que es, entre otras cosas, como se ha conser-vado en los apellidos» (Bañales & Gorrotxategi 2007: 258).

artikulu pertsonalaren ordez artikulu definitu arrunta erabili behar da. Horrela (32) paradigma supletiboa dugu:

(32)	mask.	fem.
sg.	En Jordi	Na Nuria
pl.	Els Jordis	Les Nurias

Artikulua espletiboa¹⁵ da, funtzio sintaktikorik gabea. Badu erabilera diskurtsibo praktikoa, pertsona izen baten aurrekari informatiboa izatearena. Honela deskribatzen du ezin argiago E. Corominak (2001: 407-408):

En el cas del català, hom arriba a la conclusió que l'ús de l'article personal no té repercussions sintàctiques: a diferència de l'article definiti, que desenvolupa una funció actualitzadora amb els noms comuns, l'article personal 'es sintàcticament redundant, expletiu; esdevé un apèndiz o una mera marca rutinària de nom propi personal.

Nolanahi ere, interesgarriena, artikulutasunaren mamua betiko uxatzen duelako, bere jatorria da. *Don, dona* tituluen forma aferetiko klitikatuak¹⁶ baino ez dira *en, na* «aurkezleak»:

Aquesta partícula o article personal adopta en els inicis les formes *en* (masculí) i *na* (femení), provinents dels mots del llatí vulgar *DOMINE* i *DOMINA*, i, fins al segle xv, constitueix un tractament de respecte o de cortesia. que precedeix el nom de les persones de tots els estaments socials. [...] A partir del XV perd el valor de tractament respectuós (primer, en la llengua parlada) i esdevé un mer presentador dels noms propis de persona, tal com s'utilitza avui. (*Ibid.*: Resum).

Artikulu definituekiko antzak dialektalak diren *el, lo, la* forma analogikoak ere sortarazi ditu. (01)eko *El Cano* edo (31)ko *La Roseta* toponimoen kasuen berrinterpretazio bertsua dugu hemen ere. Formaz artikuluen antza duten sekuentziak –hitz hasierako *el-, la-* eta hauen antzekoak– analogiaz hauen eitea hartu eta hala maskaraturik erabiltzen dira. Hauek ere, ematen zaien izena ematen zaiela, ez dira artikulua, artikulu mozorroa hartutako bestelako elementuak baizik. Pen-

15. Artikulu onimikoari erreferentzia egiteko «espletibo» terminoa Longobardiren eta, oro har, azken hogei urteotako literatura sortzailean komuna izan da, baina hortik kanpo ere bai, bistan denez. Lan honetan aipatu ditugu autore apurren artean, Corominak (2001), Devísek (2008) eta Bosquek (2016) gutxienez badarabilte.

16. Ez dirudi zuzena denik Forteza i Cortèsek (2008: 342) ematen duen *sen* (<*senex* edo *senior*) jatorria, Mallorcan erabiltzen den tratamendua.

tsa daiteke katalanaren artikulua pertsonalak duen jatorri bera duketela beste lurralde batzuetan erabilitakoek, edo Katalunian sorturikoa zabaldu egin zatekeela. Artista edo sona handiko emakumeak erreferitzeko zabalduko antzeko erabilera bat italiar jatorrikotzat hartu ohi da, modaz Frantziara eta Europara zabaldua. Antzeko zabalkunde bat suposa genezake, bada, artikulua katalanerako.

c) *Artikulu bizkarroiak*¹⁷

Esanik geratu berri den bezala, baliteke artikulua itxurako *el, la* elementuak zenbait kasutan¹⁸ sortzez ere ez izatea artikulua, ezpada artikulua analogiaz zabalduko bestelako morfemak. Funtzio aurkezle edota hurbiltzailea dutela esan izan da irizpide zuzenez. Izengoitiena fenomeno honen kasu paradigmatikoa izan daiteke.

- (33) a. Er Pantera Rosa (komediante italiarra)
- b. El Ovnis (Barakaldoko pertsonaia)
- c. La Colorines¹⁹
- d. El Cunetas²⁰
- (34) a. El [comediante que imitaba a la] Pantera Rosa
- b. El [tipo que está obsesionado con los] ovnis
- c. La [(el) artista que luce] colorines
- d. El [tipo / coche que acaba siempre en las] cunetas

Pentsa daiteke izen hauetan izenaren aurrean sarri azaltzen den artikulua itxurako elementua II.2.c) atalean aztertuko dugun elipsia dagoela. (33)-(34)ko hauetan, haatik, esaldi oso bat gendake elidituriko elementua, bestela nekez azal daiteke artikulua itxurako horren eta izenaren arteko dislokazioa edo komuntadura falta, bai generoan bai numeroan. Sasi-artikulua numero eta generoa elidi-

17. F. Zabeeh-ek, lan klasiko batean, izen propio guztiei aplikatzen die terminoa: «[T]he syntactic aspects of PNs are parasitic upon more fundamental features, i.e., semantic and pragmatics» (1968: 46).

18. II.2.c) atalean aztertuko dugun *El Peru* bezalakoetan ere bai, besteak beste.

19. «Yo revolucioné el vestuario, sacaba blusitas de colores, con encajes, abanicos y sombreros llenos de perlas y por eso empezaron a llamarme “La Colorines”», [<http://memoriasclubdeportivodebilbao.blogspot.com.es/2012/06/el-barrio-chino-de-bilbaola-palanca-ano.html>, 2017/11/25ean kontsultatua].

20. Lehengo batean (2017/11/19), Zollon ondo aparkaturiko auto baten kristalean grabaturik ikusia.

turiko esaldiaren subjektuari legozkioke, erreferente edo izen-eramalearenak lira-teke eta ez izengoiti gisa hartutako apelatiboena alegia. Ez dago ezer analisi hau eragozten duenik, eta argi dago apelatibo horiek aukeratzeko orduan ideia horiek edo antzeko beste batzuk baliatu direla. Hain garbi ez dagoena, askotan zaila baita azpiko esaldi edo ideia hori berreskuratzea, ea elipsia den honelako izengoitiak sortzeko prozedura edo zuzenean funtzio hori betetzeko artikulua definituaren formak profitatu dituen morfema espezifiko baten aurrean gauden. Kutsu familiar baina aldi berean umorezkoa emango lioke morfema honek izenari, bestela *don/ doña, san/santa, tío/tía, miss/mister...* tratamenduen erabilera berezitu batez ematen dioguna, *Mister Proper* telebista-iragarki pertsonaia famatua konparazione:

- (35) a. Don Pantera Rosa
 b. (El) Tío Ovnis
 c. Santa Colorines
 d. Mister Cunetas

Morfema bizkarroi honek artikulua forma edo jantzia hartuko zukeen baina honen funtzio determinatzailearekin inolako zerikusirik gabekoa beteko zukeen. Morfema izendatzaile bat litzateke, beraz.

2. *Onoma diskurtsiboak*

Gaingiroki baino ez ditugu aipatu Bosquek (2016: 113) «exento» deitzen dituen artikulua. «Halabeharrezko» izendapena aproposagoa izan daiteke. Izan ere, behin apelatibo «exentoa» desagertuta, artikulua eta onomak bat egiten dute. Aurrez aurre suertatzen dira orduan, baina nahasirik ez. Halabeharrezko bikotea osatzen dute, itxurakeria egiten duena, baina ez da izatezko bikotea izatera ere iristen. Sasi-artikulu onimiko asko ditugu sail honetakoak. Hauek badira artikulua baina ez dagozkio onomari, onomari aposatzen zaion eta eliditurik egon daitekeen apelatibo bati baizik. Artikuluak, benetakoak kasu honetan, ize-nordainak dira, fonetikoki onomari klitikaturik gauzatzen badira ere.

a) *Tropo-ordainak*

Artisten obrak sarri metonimikoki aipatzen dira, artistaren izena honen obra bakoitza izendatzeko erabiliz. Figura edo tropo erretoriko ezaguna dugu hau. Sinekdokea ere ez dabilkio oso urruti metonimiari, nahiz eta bigarrena izaten den izen propioen ordezkatze honetan aipatu ohi dena.

Izenak metaforikoki ere erabil daitezke. Izendun baten ezaugarriak beste bati suposatzen zaizkionean, aurrekoaren izenaz aipa daiteke bigarrena. Hau ere, jakina, tropo erretoriko ezaguna da, tropoen tropoa.

Antonomasia ere oso azertua izan da, onomastika frantsesean batez ere. Fenomenoa berez, izen komunak propietzat eta propioak komuntzat hartzean datza, beraz aurreko tropo bien konbinazioa da. Zeren eta, oso azkar gidatzen duen bati Fitipaldi deitzen diogunean erkaketa metaforikoa egiten dugu, baina baita ordezkapen metonimiko bat ere aldi berean.

Kasu hauek duten ezaugarri komun bat zenbaki baten edo artikulua indefinituaren ohiko erabilera da, artikulua definitua ere posiblea bada ere. Honen azalpena gardena da: eliditurik ezkutatu zaigun apelatiboak errealitate plural bat erreferitzen du, erreferentea ez baita monobalentea, polibalentea baizik. Egitate honek berriro ere agerian uzten du artikulua eta izenaren arteko lokabetasuna. Modigliani artista bat eta bakarra zen eta «lau Modigliani» esaten badugu edo enkante batean erositako «Modiglianiak», ondorioz, objektu bat ari gara pluralizatzen eta ez artista edo artistaren izena. Erabilera erretoriko hauetan elipsia izengoitien kasuan ikusi bezalakoa da:

- (36) a. Modigliani bat
- b. El Picasso más caro de la historia
- (37) a. Modigliani [pintoreak sortutako obra] bat
- b. El [cuadro pintado por] Picasso más caro de la historia

Ohar bedi aurreko adibidean Picassori darraion modifikazioa ez dagokiola Picassori, eliditurik dagoen eta artikulua ordezkatzeko duen apelatiboari baizik:

- (38) a. El cuadro más caro de la historia pintado por Picasso
- b. *El Picasso más caro de la historia
- (39) a. El Picasso más pesimista celebra 80 años de Guernica en el Reina Sofía²¹
- b. El Picasso más erótico se exhibe en París²²

Aurreko esaldietako lehena tautologikoa da, gero aipatzen den «Guernica» koadroaren perifrasi (metonimikoa) baita «el Picasso más pesimista». (39b) adibideak, haatik (38b)-n ezinezkoa zen irakurketa eskatzen du. Azken hau ez

21. www.bez.es (2017/4/10).

22. ABC, 2017/10/10.

da atal honetan aztertzen ari garen erabilera metonimikoa, ezpada V. Bianchiz geroztik (1999) «stages of Paris» edo «étapes de Paris» deitu izan den tanke-rakoa (16), *The Paris of my youth* adibidearen sailekoa alegia.

Honelako adibideek euskaraz artikulua eta onomaren arteko lotura-rik eza berretsi besterik ez dute egiten, bietan ala bietan artikulua zuzenean modifikatzaileak baitarama derrigorrean:

- (40) a. Picasso ezkorrena
b. Picasso erotikoa

Bestalde, marka komertzialetako produktuak itxura batean artisten obrak aipatzeko erabiltzen den prozedura metonimiko bertsuaz erreferi ditzakegu:

- (41) a. Heineken bat hartuko dut
b. Zumeta bat erosiko nuke

Itxura gorabehera, markena askoz hurbilago dago II.2.d) atalean aztertuko ditugun erabilera metalinguistikoetatik erretorikoetatik baino. Hor jorratuko dugu, bada, hauen berezitasuna.

b) *Aposizio-ordainak*

- (42) a. Arga ibaia
b. Ori Txiki mendia
c. Seychelle uharteak

Ibai, mendi, artxipelago... izenetan ohikoa da apelatibo hauek onomari aposaturik agertzea. Hori bezain ohikoa da, ordea, apelatibo horiek eliditurik agertzea. Egitura osoa mendi izenekin askoz bakanago erabiltzen da.

- (43) a. El Arga
b. El Ori Txiki
c. Las Seychelles

Forma laburtu hauen azpian dagoena interpretatzeko erabateko adostasuna dago: «formas exentas, por ausencia de un nombre común en una estructura apositiva» (Bosque 2016: 113).

Euskaraz nekez erabiltzen da erabide hau. Elipsia baliatzen denean artikulua eta guzti eliditzen da apelatiboa. Kalkoari egoztekoak dirudite (44c)-(44f) adibideek, nahiz eta Euskaltzaindiak irla, itsaso... izenetan holakoak onetsi dituen²³. (44b)eko *Ori Txiki* inoizka artikuluekin entzuten da, egitura adjektibalak aginduta, jakina. Eta horrela da, zinez, zuberotarren ahotan: *Orhi Tipia*²⁴; sekula ez, ordea, **Oria* edo **Orhia*, hori Gipuzkoako ibaia (eta ibaialde) baita soilik.

- (44) a. Arga
 b. Ori Txiki
 c. Seychelleak
 d. Mediterraneoa
 e. Nerbioia
 f. Kilimanjaroa

Artikulua gordetzen den kasuetan, apelatiboen elisioa emanik ere, egitura apositiboa ez da desagiten, artikulua uzten baitute ordezko. Holakoetan, artikulua izernordainaren papera betetzen du, nahiz eta onomari klitikaturik agertzen den, halako moldez non honen osagaia dela pentsaraz dezakeen eta zenbait kasutan honi itsatsita fosildu.

- (45) a. El Peru
 b. L'Argentine
 c. The Titanic

Itsaso, kontinente, estatu, itsasontzi... izenekin ere, ohikoa da egitura apositibo eliditua, hizkuntzaz hizkuntza aldeak egon arren. Zenbait kasutan, alabaina (45a)ko *El Peru* bezalako formetan ez dago garbi zein izan daitekeen elidituriko elementua, inoiz egon bada, arrastorik utzi gabe desagertu baita. Suerta daiteke, beraz, I.1.b) atalean aztertu bezala, erabidea analogiaz zabaldu izana. Horrela balitz, artikulua itxurako horiek bestelako morfemak lirateke; «aurkezleak», katalanaren artikulua pertsonaletarako Corominak proposatua zuzena balitz; edo egokiago, menturaz, «hurbiltzaileak», hitzari beste adiera bat emanez, partikula hauen funtzioak, pertsona izenekin erabiliak direnean behintzat, erreferitua

23. 52 Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak), 70 Mundu zabaleko uharte nagusiak eta 156 Europako toponimia fisikoa arauetan batez ere.

24. Baita idatziz ere. Horrela wikipedian, esaterako: https://eu.wikipedia.org/wiki/Orhi_Tipia.

hurbilago sentiaraztea dela baitirudi. Nolanahi ere, zerikusi gutxi artikuluek dituzten funtzioekin, ezpada artikulua definituek duten funtzio anaforikoarekin.

Badago sail honetan sartu beharko litzatekeen erabilera berezi bat forentseen hizkeraren ezaugarritzat²⁵ aurkezten dena baina guk XIX. mende bukaerako epaitegi eta udal dokumentazioan sarri aurkitu duguna, udal biltzarren aktetan kasu baterako. Funtzio oso argia antzematen zaio: erreferente ezezagun / ezagun dikotomia bereizteko artikulua definitu eta indefinituaren joko imitatzea. Lehendabiziko aipamen batean, erreferitua ezezaguna denean artikulua indefinituaren ordeiz izen deiturak erabiltzen dira; aurrerantzako aipamenetan, berriz, artikulua definitua izena edo sarriago deitura itxuraz determinatuz. Artikulu definituak duen erabilera nagusia dugu hemen, bai, baina elipsea ere bai, honelakoak aposizio sintagmen parean uzten dituenak. Izan ere (22a)ko *el Garay* sintagmaren azpian *el citado | mencionado | (susodicho) Garay* besterik ez baitugu.

c) *Zehaztaileak*

- (46) a. Nafarroa beheera vs Nafarroa garaia
- b. Ameskoa barrena vs Ameskoa goiena
- c. Pirineos Centrales vs Pirineo Central
- d. Europa penintsularra vs Europa kontinental
- e. Plinio zaharra vs Plinio gaztea
- f. Zaragoza probintzia vs Zaragoza hiriburua

Izen propioek modifikatzaile murriztalerik onartzen ez badute ere, zenbait adjektibo erlazional eta modifikazio lagun dakizkieke, hauen erreferentzian azpi-domeinuak sortaraziz edo berauek biderkatuz. Normalean, entitate ezberdinak dira eta ez da ohikoa beren erreferentziak batean subsumitzea, baina ez da arrotza ere. (47c) adibidea asteriskoz markatu dugu, zentzu horretan ez baita erabiltzen. Artikulua hor, mendi-erreka-artxipelago izenetan ohi bezala, elidituriko apelatiboari baitagokio, *los montes Pirineos* kasu honetan. (47f)eko kasuan debekua beste arrazoi bategatik suertatzen da, probintzia eta hiriburua erlazio hiperonimikoan egoteagatik hain zuzen.

25. «Salvo en usos arcaizantes (como el forense) y vulgares o dialectales, este tipo de sintagmas nominales es inmóvil en cuanto al artículo» (Alarcos Llorach 1980: 232).

- (47) a. bi Nafarroak
 b. las Améscoas²⁶
 c. *los Pirineos / los [montes] Pirineos
 d. *las Europas
 e. los dos Plinius
 f. *las Zaragozas

(47b)ko *las Améscoas* sintagma pluralizatuak (48)ko bi sintagmen baturatik sortua da:

- (48) a. Améscoa baja
 b. Améscoa alta

Bitxia da bi izen paraleloen jokaera ezberdina. *Améscoa Baja* udalerria da eta nekez entzuten da artikuluaekin; *Améscoa Alta* ez da udalerria eta, horrenbestez, askoz ere gutxiago erabiltzen da. Kasu honetan sarri entzuten da artikulua lagunduta. Nolanahi ere den, pluraleko formak ezinbestean jasotzen duen artikulua (49)ko forma suplementatuak ditu azpian.

- (49) a. Améscoa la baja / Ameskoa barrena
 b. Améscoa la alta / Ameskoa goiena

Forma hauek ere erabiliak izan dira eta oraindik erabiltzen dira, besteen ondoan erabilera bakanagoa izan arren. Agerian uzten dute, euskarazko *barrena* eta *goiena* espezifikatzaileek bezalaxe, artikulua ez dagokiola onomari honi laguntzen dion elementuari baino. Hau ezin argiago hautematen da honelako espezifikazioak daramatzaten pertsona izenekin, euskaraz²⁷ zein beste hizkuntzetan:

- (50) a. Sancho el Sabio / *el Sancho Sabio
 b. Pépin le Bref / Pipino el Breve / Pepin the Short / Pippin der Kleine

Leku izenekin ere, usadiokoa da erabide hau, nahiz eta espainolez determinazio sintagmen arauzko ordena (det + sust. + adj.) izan:

26. «Las Améscoas, así en plural, es un nombre relativamente moderno con el que se designa el conjunto de los pueblos navarros de Améscoa Alta y Baja» (Lapiente 1977: 477).

27. Dozenaka adibide Euskaltzaindiaren 181. arauan: Erdi Aroko pertsona-izenak.

- (51) a. Andalucía la Alta
 b. Bilbao la Vieja
 c. Castilla la Vieja / (la) Vieille-Castille
 d. Cáceres el Viejo
 e. Paris la blanche (2017ko filma)

Zehaztapen edo «suplementazio»²⁸ horiek hizkuntzaren elementu funtzionalak dira eta alde horretatik artikulua ere murriztapenik gabe hartzen dute. Elementu hauek, izenari loturik erabiltzearen bortxaz izenari atxikita ihar daitezke, baina hori gertatu bitartean hizkuntz elementu lexiko-gramatikalak dira. Berezko onomak ez bezala, minuskulaz zein maiuskulaz idazten dira eta itzuli egin daitezke²⁹.

d) *Autonimoak*

Oso interesgarria da onomen erabilera metalinguistikoen gaia baina erruz gainditzen du gure lan honen asmoa. Onomek forma hutsa dute ez baitute esanahirik; eskuarki ordea, erreferente estralinguistikoekin batera irudikatzen ditugu: etiketa eta etiketatua. Nolanahi ere, zenbait testuingurutan, izendegietan esaterako, forma hutsak dira erreferitzen direnak. Autoerreferentzia bat gertatzen da kasu horietan, hortik Van Langendonckek eta bestek darabilten «autonimo» terminoa.

28. Devísek (2009: 443) «delimitadores» (*la España Visigótica*) eta «identificadores» (*Fernando el Santo*) bereizten ditu modifikatzaile hauen artean. Toponomastikaren arloan Zilliacusek horrela definitzen ditu: «... the names of the type we are accustomed to call supplemented names. [...] In such names a distinguishing additional qualifier has been added secondarily and for differing reasons to a name established in use earlier» (1991: 17). Tradizio berean Dalberg-ek, ordea: «In Scandinavian place-name terminology this phenomenon is often referred to as reciprocation, while the names are called reciprocating names» (2002: 829), «The aim of reciprocation is to distinguish localities with identical names from each other linguistically» (*ibid.*: 830). Quebec-eko tradizio toponomastikoan «déterminatifs» eta gure artean Salaberrik (2006: 881) «izen bereko etxeen bereizketa»z ari dela «zehaztaileak» deitzen die eta hori hartu dugu anabasa terminologiko hau gainditze aldera.

29. Euskaltzaindiko Onomastika Batzordeak elementu hauek, sarrienik oikonimian erabiliak direnak, onomari itsatsita idaztea inposatu du, tradizioa hautsiz eta kategoria ezberdineko elementuaz nahasiz.

Izenen formak pluralean aipatzen direnean batez ere, artikulua erabili ohi da:

- (52) a. Las Arantzas se suelen reunir todos los años en Arantzazu
 b. Los Juanes lo llevan en el nombre
 c. Nik ezagutzen ditudan Eneko guztiak 30 urtetik gorakoak dira
 d. No conozco un Mariano bueno

Adibide hauek metalinguistikoak diren aldetik *izeneko*, *deritzon* edo horrelako egitura denominatibo bat dute eliditua:

- (53) a. las [que tienen por nombre] Arantza > Arantzas
 b. Los [llamados] Juan > Juanes
 c. Eneko [izeneko / deritzen / deitutako] guztiak
 d. un [individuo de nombre / nombrado] Mariano

Euskaraz nekez sortuko ditugu **Arantzak*, **Enekoak* edo **Marianoak* baina partitiboa eta loturik ez doazen gainerako determinatzaileak arazorik gabe erabiltzen ditugu. Lan honen izenburuko *Jordiak*, prentsatik hartua, salbuespen bakarrenerarikoa da zinez. Izentasuna kualitate bezala atxikitzen da eta horrenbestez nekez pluraliza daiteke. Espainolez, ordea, plural marka izenera zabaltzen da nolabaiteko indukzio, erreperkutsio³⁰ edo analogia morfosintaktikoaz, baina nekez ikusiko dugu hau deiturekin, kontsonantez bukatuak badira bereziki.

Honek adieraziko liguke analogia geroago, elipsiaren ondotik, burutzen dela eta hori badirudi bateraezina dela bat-batean egiten den elipsi batekin. Azalpena, berriro ere, analogia hori nolabait morfologizaturik egotean bilatu behar dugu. Ahozko erregistro ez jasoetan bereziki gertatzen da hau, oso gutxi euskaraz. Euskaraz, arauak urratzean oinarritzen den hizkera publizitarioetan edo inpaktu mediatikoa lortu nahi duten prentsa-goiburuetan-eta aurkitzen ditugu honelakoak, Euskaltel enpresaren «Patxien» aspaldiko iragarki arrakastatsua lekuko.

Markak ere sail honetan sailka daitezkeela esana dugu goian. Izan ere, markak izenak dira funtsean, irudi (korporatibo) batez lagundutako izenak. Badago alde txiki bat, aitzitik. Markak objektu materialei baitagozkie, errazago gaitzen dugu izentasunaren izaera abstraktu atxikiezina:

30. Hori da Alarcos Llorachek darabilen terminoa, artikuluek flexio markak izenetatik bereganatzen dituztela proposatzen duenean: «Es fácil concluir que éstos son una mera repercusión del número y del género de los sintagmas nominales a que se agregan» (1980: 234).

- (54) a. Kawasakiak asko kontsumitzen dit
 b. ?Kawasakik asko kontsumitzen dit
 c. Renaulta konpontzera eraman dut

Horrelakoak saihesteko modu bakarra (55a)ko bezalako aposizioak erabiltzea da, baina hori, bistan da, ez da ekonomikoa eta ez da erabiltzen, *Kawasaki* besterik ezin izanik, motorra dela badakigulako. Bestela suerta liteke *Honda*, *Suzuki* edo *BMW* markak aipatuta. Beste kontu bat da, modu generikoan hitz egiten dugunean. Garagardo bat edo txanpu pote bat nekez aipatuko dugu geure kotxe edo motorra aipatzen dugun bezala eta alde horretatik ohikoena (55b) tankerako erabilera aposizio gabeak erabiltzea da, izentasuna (markatasuna kasu honetan) objektutasunari gailenduta. Hauetan, gainera, errazagoa da aposizioa baliatzea.

- (55) a. ?Kawasaki motorrak asko kontsumitzen dit
 b. Kawasaki oso motor ona da
 c. Heineken markarik salduena da orain

Euskaltzaindiaren 183. araua honetaz mintzo da. Hortik aterea da (54c) adibidea. Birgategorizazio fenomenotzat hartzen du erabilera hau:

Adierazi beharrekoa da, halaber, izen arrunten baliokide ere izan daitezkeela testuinguru jakin batzuetan, izen bereziekin gertatzen den bezala. Alegia, kategoria-aldaketa jasan dezakete. Batzuetan, izen bereziak edo adierazpen izendatzaileak, bere izaera galdu gabe, morfosintaktikoki izen arrunt gisa jokutzen du. Adibidez, marka erabiltzen denean marka horren produktu bat izendatzeko.

Birgategorizazio fenomenoak efektiboki lexikalizaturiko edo apelatibizaturiko izenez ari garela erabiltzen da gehiago. Honelakoetan antonomasiak hitz egitea zuzenagoa izan daiteke.

III. Ondorioak

Onomek, berez autodeterminaturik egotean edo determinazio sintagmen parekoak³¹ izatean (bir)determinazioa aienatzen dute. Diskurtsoan, alabaina, gramatikaren gurpilean sartzen da, eta osagai gramatikalekin batera jardun behar duenez gero, zenbait determinazio jaso dezake, berezko zein itxurazko. Berezkoak, zernahi gisaz, zeharkakoak dira.

31. «Perhaps the most salient syntactic feature of names is the fact that they function as complete noun phrases instead of singular words within those phrases» (Jenkins, 2013: 25).

Artikulu horiek kasu gehienetan onomari ez, baina onomari laguntzen dion apelatibo edo esaldi eliditu bati dagozkiola frogatzen saiatu gara. Aposizioetan onoma ez da sartzen egitura hori osatzen duen determinazio sintagmaren domeinuan, ezpada horri aposaturik kokatzen. Aposizioetan apelatiboa ezabatzen denean, talka egiten dute apelatibo eliditua determinatzen zuen artikuluak eta onomak baina ez dute bat egiten, artikuluak izenordain gisa jokatzeko baitu.

Beste kasu batzuetan, arrazoi estilistikoak eta erretorikoak bitarte, onomak apelatibo baten papera jokatzeko du eta apelatiboari dagozkion determinatzaileak har ditzake. Erabilera metonimiko, metaforiko eta antonomasikoak dira hauek, gramatika arauak urratzen dituzten lizentziak.

Erabilera metalinguistikoetan onomen forma hutsa atxikitzen delarik, «izen» edo «marka» apelatibo sailkatzaileak dira artikulu jasotzen dutenak eta hauen ausentzian onomak berak.

Azkenik, aurreko joko diskurtsibo horietatik denetatik libre, artikulu ihar-tuak ditugu, determinatzaile sintagma batean txertatuta hormatu eta onomaren zati bihurtu zirenak. Onoma horiek, artikuluaren zenbait ezaugarri morfologiko (baina ez semantiko edo sintaktiko) gorde arren, etiketa autodeterminatu hutsak dira, artikulu ihartu bat pintatua dutenak, besterik gabe.

Horrenbestez, onomak eta artikuluak, maila ezberdineko elementuak baitira, bateraezinak direla baieztatu dezakegu. Itxurak itxura, onomei laguntzen dieten artikuluak edo fosil hutsak dira edo ez dira onomaren determinatzaileak, honi laguntzen dioten elementu elidituen ordean dauden izenordainak baizik.

IV. Bibliografia

- Alarcos Llorach, Emilio ([1970] 1980): «El artículo en español», in *Estudios de gramática funcional del español*, Madrid, Editorial Gredos, 223-234.
- Berezowski, Leszek (2001): *Articles and Proper Names*, Kraków, Wydawn-Uniwersytetu Wrocławskiego.
- Bianchi, Valentina (1999): *Consequences of Antisymmetry Headed Relative Clauses*, Berlin-New York, Mouton de Gruyter.
- Bosque, Ignacio (2016): «Sustantivo», in Javier Gutiérrez-Rexach (ed.), *Enciclopedia de Lingüística Hispánica, vol. 2*, London-New York, Routledge, 111-123.
- Chomsky, Noam (1965): *Aspects of the Theory of Syntax*, Cambridge (MA), The MIT Press.
- Coromina i Pou, Eusebi (2001): «L'article personal en català. Marca d'oralitat en l'escriptura» (Tesis doctoral), Universitat Autònoma de Barcelona. «Resum» in <https://ddd.uab.cat/record/38438>, 2017/11/25ean kontsultatua.

- Dalberg, Vibeke (2002): «Name variant or new name? A discussion based on Danish toponyms», in A. I. Boullón (ed.), *Actas do XX Congreso Internacional de Ciencias Onomásticas. (Santiago de Compostela, 20-25 de setembro de 1999)*, A Coruña, Fundación Pedro Barrié de la Maza, 829-834.
- Devís Márquez, Pedro Pablo (2009): «Determinación y complementación del nombre propio en español», *Nueva Revista de Filología Hispánica*, vol. 57 (2), 441-488.
- Forteza i Cortès, Tomàs (2008): *Gramàtica de la Lengua Catalana*, vol. I., Barcelona, Edicions UIB / Publicacions de l'Abadia de Montserrat.
- Gorrotxategi, Mikel & Gregorio Bañales Salaberri (2001): *Toponimia histórica de Barakaldo*, Barakaldo, Ediciones de Librería San Antonio.
- Gorrotxategi, Mikel & Patxi Salaberri (2001): *Euskal Izendegia*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza.
- Grevisse, Maurice ([1964] 2008): *Le Bon Usage. Grammaire française avec des remarques sur la langue française d'aujourd'hui*, Gembloux, Duculot.
- Jenkins, Derek C. (2013): *Personal names as pre-linguistic signs*, Master's Thesis, University of Tartu.
- Lander, José María (2008): «Toponimia de Eraul», in *III. Onomastika Jardunaldien Agiriak, Lizarra, 1990ko iraila*, Bilbao, Euskaltzaindia, 247-270.
- Lapiente Martínez, Luciano (1977): «Las Améscoas («Puntualizaciones sobre el contenido geográfico de los nombres Améscoa y Arana»)», *Príncipe de Viana*, 148-149, 477-492.
- Lass, Roger (1997): *Historical Linguistics and Language Change*, Cambridge University Press.
- Longobardi, Giuseppe (1994): «Reference and proper names: A theory of N-Movement in syntax and logical form», *Linguistic Inquiry*, 25 (4), 636-637.
- Manterola, Julen (2015): *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*, Tesi doktora, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Mitxelena, Koldo (1955): «*Frantziskua, Peria, Iesusa*», *BAP*, 11, 113-115.
- (1959): «Sobre -a en nombres vascos de persona», *Euskera*, 4, 5-10.
- Salaberri, Patxi (2006): «Nafarroako euskal oikonimiaz», *ASJU*, 40, 871-894.
- Van Langendonck, Willy (2007): *Theory and Typology of Proper Name*, Berlin-New York, Mouton de Gruyter.
- Van Langendonck, Willy & Mark Van de Velde (2016): «Names an Grammar», in Carole Hough (ed.), *The Oxford Handbook of Names and Naming*, Oxford, Oxford University Press, 17-38.
- Zabeh, Farhang (1968): *What Is in a Name? An Inquiry into the Semantics and Pragmatics of Proper Names*, The Hague, Martinus Nijhoff.
- Zilliacus, Kurt (1997): «On the function of proper names», in R. L. Pitkänen & K. Mallat (eds.), *You name it. Perspectives on onomastic research*, *Studia Fennica. Linguistica* 7, 14-20, Helsinki, Finnish Literature Society.